

Nork eska dezake?

Hernanin kokatuta dauden Elkarteek.

Diru-laguntzaren zenbatekoa

- Euskara hutsezko webguneak, edota ele bietakoa edo eleanitza izanda, euskarazkoari gutxienez beste hizkuntzetan eman zaion adinako tratamendua emanda, eta lehen orrian euskarazkoa lehenetsita: kostuaren %50, gehienez ere 450 €.
- Ele bietakoa edo eleanitza izanda, euskarazkoari gutxienez beste hizkuntzetan eman zaion adinako tratamendua emanda, baina lehen orrian euskarazkoa lehenetsi gabe: kostuaren %30, gehienez ere 300 €.

Aurkeztu beharreko agiriak

- [Eskaera-orri normalizatua.](#)
- NArek edo IFKren fotokopia.
- Gastuaren justifikazioa.
- Webgunearen helbidea.

Nola eskatzen da?

- 🖐️ **Aurrez aurre:** hhz-Herritarren Harrera Zerbitzuan (Udaletxeko beheko solairuan).
 - Astelehen, asteazken eta ostiralean : **08:00 – 14:00** (urte osoan zehar)
 - Astearte eta ostegunetan: **08:00 - 18:30** (irailetik ekainera)
 - Uztaila eta Abuztuan astelehenetik ostiralera **08:00-14:00**
- 📞 **Telefonoz:** Ezin da telefonoz eskatu. Dena den informazio gehiago eska dezakezu, edo eskaera eta informazio-orria etxera bidaliko dizkizugu, **943 337029** telefonora deituz.
- 💻 **On-line:** [Zerbitzu telematikoak](#) erabiliz ere erregistratu daiteke idatzi bat eta horri atxikitako agiriak.